

Videoteca de Baketik

Baketik ha creado una videoteca de películas y documentales cuyo contenido tiene relación con la lucha por vivir y convivir éticamente. Su objetivo es exclusivamente educativo y no comercial. Baketik presta gratuitamente estas películas a quien lo solicite: centros educativos, grupos de tiempo libre, parroquias, ONGs, asociaciones de todo tipo, familias, cuadrillas de amigos/as... Cada película va acompañada de una breve guía didáctica como ésta. Su finalidad es facilitar el análisis y la reflexión sobre su contenido. En cada una de estas guías un/a colaborador/a de Baketik que ha visto la película ha elaborado dos de sus apartados: «temática» y las «preguntas antes y después de su visionado». Es la sugerencia que nos hace esta persona para ver esta película. Si quieres tú también puedes colaborar enviándonos tus opiniones sobre películas que te hayan gustado. (Más información en www.baketik.org)

Temática

Infancia, duelo, amor

Infancia. Viviremos un verano desde los ojos de Frida, siendo testigos de sus juegos, diversiones, aburrimientos y mecanismos de lidiar con la vida de una niña de 6 años.

Duelo. A lo largo del film, la protagonista nos mostrará su proceso de duelo tras la pérdida de sus padres.

Amor. La película nos muestra la importancia del amor para el desarrollo de la persona y la necesidad vital de sentirnos amados/as de manera incondicional, estemos como estemos.

Sugerencias para ver y escuchar la película

Una película se puede ver y escuchar de muchas maneras. Ofrecemos unos puntos de referencia. Concretamente, sugerimos ver y escuchar la película...

...hacia adentro. Reflexionar sobre lo que la película nos sugiere en primera persona y sobre las preguntas que nos plantea en nuestra propia vida. No pretendemos buscar respuestas definitivas, atendemos a las resonancias que nos deja.

...hacia fuera. Promover un coloquio sobre la película en familia o en grupo. No se trata de llegar a conclusiones. Compartimos lo que hemos sentido y percibido e intentamos escuchar y entender la percepción diferente de los otros.

...no solo con la cabeza, también con el corazón. Se trata de dejar por un momento a un lado los prejuicios ideológicos o ideas preconcebidas para que, al hilo de lo que nos cuenta la película, puedan hablar los sentimientos.

...y después de algún tiempo repensar. Estar atentos al poso que la película deja después de unos días. Ese «poso» es una impresión en la que se funden nuestra reflexión sobre lo que hemos visto y la vida propia que la historia cobra en nosotros/as.

Algunas preguntas...

...antes de la película

·Sobre la infancia: ¿recuerdas algún verano de cuando tenías alrededor de 6 años? ¿cómo era tu día a día? ¿recuerdas momentos de alegría y momentos dolorosos? ¿cómo te han afectado?

·Sobre el duelo: ¿Qué es el duelo? ¿En qué momento se puede decir que se ha superado un duelo?

·Sobre el amor: ¿Qué entendemos por amor? ¿Qué significa ser querido/a y sentirse querido/a? ¿Qué importancia tiene en nuestra vida el amor? ¿Qué significa querer sin condiciones?

...después de la película

·¿Qué sabe Frida de la muerte de sus padres? ¿Cómo vive la pérdida de su madre a lo largo de la película? ¿Y Marga y Esteve?

·¿Qué supone para cada uno de ellos el fallecimiento de la madre de Frida? ¿Qué sentimientos despierta en cada uno de los protagonistas? ¿Y en los abuelos?

·¿Cómo es la relación de Frida con sus tíos y su prima en la primera parte de la película? En un momento, la forma de relacionarse entre ellos cambia, ¿qué sucede para que se dé ese cambio? ¿Cómo lo vive cada protagonista?

Verano 1993

Ficha técnica

TÍTULO ORIGINAL: Estiu 1993 (Verano 1993).

AÑO: 2017.

DURACIÓN: 97 min.

PAÍS: España

DIRECCIÓN: Carla Simón.

REPARTO: Laia Artigas, Bruna Cusí, David Verdaguer, María Paula Ro-

bles, Paula Blanco, Etna Campillo, Jordi Figueras, Dolores Fortis, Titón Frauca, Cristina Matas, Berta Pipó, Quimet Pla, Fermí Reixach, Isabel Roccatti, Montse Sanz, Tere Solà, Josep Torrent.

PRODUCCIÓN: Inicia Films / Avalon P.C.

Sinopsis

En el verano de 1993 y tras la muerte de sus padres, Frida, de seis años, se muda desde Barcelona a una zona rural en Cataluña. Vive con su tía y su tío, que ahora son sus nuevos tutores legales. La vida en el campo es un desafío para ella. La familia hace lo que puede para lograr un frágil equilibrio y conseguir llevar la normalidad a su vida. Lentamente, Frida se dará cuenta de que está allí para quedarse y que deberá adaptarse al nuevo entorno. Antes de que termine el verano, Frida tendrá que enfrentarse consigo misma.

Verano 1993



baketik

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

baketik

943-25 10 05

www.baketik.org

Baketik-en bideoteka

Baketik-ek geurekin eta besteekin etikoki bizitzearekin zerikusia duten filmen eta dokumentalen bideoteka bat sortu du. Helburu hezigarria dauka soilik, ez komertziala. Baketik-ek doan uzten dizkie pelikulak eskatzen dituztenei: ikastetxeak, aisialdi taldeak, parrokiak, GKEak, mota guztietako elkarteak, familiak, lagun taldeak... Pelikula bakoitzak hau bezalako gida didaktiko bat darama. Edukiari buruzko azterketa eta gogoeta erraztea du xede. Gida bakoitzean pelikula ikusi duen Baketik-eko kolaboratzaile batek bi atal egin ditu: «gaia» eta «galderak pelikula ikusi aurretik eta ondoren». Hau da pertsona honek pelikula zeuk ere parte har dezakezu gustatu zaizkizun zenbait pelikulen iritziak bidalita. (Informazio gehiago www.baketik.org webgunean)

Gaiak

Haurtzaroa, dolua, maitasuna

Haurtzaroa. Fridaren begietatik biziko dugu uda bat, bere jolasak, dibertimenduak, asperraldiak eta 6 urteko neskatok batek biziari aurre egiteko dituen mekanismoak ezagutuz.

Dolua. Filmean zehar, gurasoak galdu dituen protagonistaren dolu prozesua ikusiko dugu.

Maitasuna. Filmak agerian uzten digu zeinen garrantzitsua den maitasuna pertsonaren garapenean, bai eta, edonola gaudela ere, baldintza-gabe maitatuak garelako sentitzeko beharra.

Filma ikusteko eta entzuteko iradokizunak

Pelikula bat modu askotara ikus eta entzun daiteke. Erreferentzi puntu batzuk eskaintzen ditugu. Zehazki pelikula modu honetara ikustea eta entzutea iradokitzen dizugu:

...barrura begira. Gutako bakoitzari esanguratsu egiten zaigun horri buruz eta gure bizitzan bertan sorrarazten dizkigun galderei buruz hausnartu. Helburua ez da betirako erantzunak aurkitzea, uzten dizkigun arrastoei erreparatzea baizik.

...kanpora begira. Taldean edota familian elkarriketa sustatu. Kontua ez da ondorioetara iristea. Hauteman eta sentitu duguna konpartitzea, eta besteen hautemate ezberdina entzuten eta ulertzen saiatzea da.

...ez bakarrik arrazoiarekin, baita bihotzarekin ere. Une batez aurreiritzi ideologikoak eta edo aurrez ditugun ideiak albo batera utzi, pelikulak kontatzen digun horren harira, sentimenduek hitz egin dezaten.

...eta denbora baten buruan, berriz ere pentsatu. Adi erreparatu egun batzuen ostean pelikulak utzitako arrastoari. Arrasto hori ikusi dugunari buruzko hausnarketak eta istorioak gugan hartu duen biziak sortutako inpresioa da.

Hainbat galdera...

...pelikula ikusi aurretik

·Haurtzaroari buruz: gogoratzen al duzu 6 urte inguru zenitueneko udaren bat? Nolakoa zen zure eguneroko bizitza? Oroitzen al duzu momentu onik edo txarrik? Nola eragin dizute haiek?

·Doluari buruz: Zer da dolua? Zein momentutan esan daiteke dolua egin eta gainditu dugula?

·Maitasunari buruz: Zer ulertzen dugu maitasunaz? Zer esan nahi du maitatua izateak eta maitatua sentitzeak? Zer nolako garrantzia du maitasunak gure bizitzan? Zer esan nahi du baldintza gabe maitatzeak?

...pelikula ikusi ondoren

·Zer daki Fridak bere gurasoen heriotzaz? Nola bizi du amaren galera pelikulan zehar? Eta Margak eta Estevek?

·Zer eragin du haietako bakoitzean Fridaren amaren heriotzak? Zer sentimendu pizten dira pertsonaia bakoitzarengan? Eta aitona-amonengan?

·Nolakoa da Fridaren harremana bere osaba-izebekin? Une batean, aldatu egiten da harreman hori, zer gertatzen da aldaketa hori gertatzeko? Nola bizi du hori pertsonaia bakoitzak?

Verano 1993

Fitxa teknikoa

JATORRIZKO IZENBURUA: Estiu 1993 (Verano 1993).

URTEA: 2017.

IRAUPENA: 97 min.

HERRIALDEA: Espainia.

ZUZENDARIA: Carla Simón.

AKTORE-ZERRENDA: Laia Artigas, Bruna Cusí, David Verdaguer, María

Paula Robles, Paula Blanco, Etna Campillo, Jordi Figueras, Dolores Fortis, Titón Frauca, Cristina Matas, Berta Pipó, Quimet Pla, Fermí Reixach, Isabel Rocatti, Montse Sanz, Tere Solà, Josep Torrent.

EKOIZPEN-ETXEA: Inicia Films / Avalon P.C.

Sinopsia

1993ko udan, bere gurasoen heriotzaren ondoren, Frida, sei urterekin, Bartzelonatik Kataluniako landa-inguru batera joango da bizitzera. Izebarekin eta osabarekin bizi da, bere legezko tutoreak baitira orain. Landa-inguruko bizitza sekulako erronka da Fridarentzat. Familiak ahal duen guztia egingo du oreka hauskor bat lortzeko eta bizitza normala izateko. Pixkanaka, bertan geratzeko iritsi dela eta ingurune berrira ohitu beharko duela ohartuko da Frida. Uda bukatu baino lehen, Fridak bere buruari aurre egin beharko dio.

Verano 1993



baketik

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

baketik

943-25 10 05

www.baketik.org